Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko ekainaren 11, asteartea — 112 — Martes, a 11 de junio de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita lauko maiatzaren hogeita hamarrean, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

*Lehena.* Lanaldi partziala duten langileek norberaren zereginetarako lizentzia-egunak hartzeko hitzarmen osagarria onartzea, honako eduki honekin:

«Lanaldi partziala duten langileen kasuan, honako hau izango da egun horien kopurua eta zatikatzeko aukera:

1. Lanaldi partziala izan, eta lanera astelehenetik ostiralera egunero etorri, eta egunero lan-ordu kopuru bera egiten duten langileek sei egun (eta horietatik bi zatikatzeko aukera) izango dituzte (hirurtekoengatik dagozkien egunak aparte), eta hartzen duten egun bakoitzeko, baimen-egun oso bat erabiliko da (zatikatutako egunetan izan ezik).

2. Lanaldi partziala izan, eta asteko egun batzuetan eta besteetan lan-ordu banaketa ezberdina duten langileek, edo astean zehar lanera bost egun baino gutxiagotan etortzen direnek lanaldiaren portzentajearen araberako ordu-kopurua izango dute. Lanaldi osoaren kasuan 42 ordu direla kontuan hartuta, horren araberako kalkulua egingo da.

Kasu honetan, lizentzia-eguna hartzen duen egunean lan egingo lituzkeen ordu-kopurua erabiliko du langileak bere ordu-poltsatik. Hala ere, gehienez zortzi egunetan banatuta hartu ahal izango ditu erabilgarri dituen orduak, eta zortzi egun gozatu ondoren, duen ordu-kopuru osoa erabili gabe badago, ordu horiek galdu egingo ditu.

Lizentzia-egun bat hartzean, lan-egunaren zati bat bakarrik hartzekotan, gutxienez bi ordu hartu beharko dira.

Aldiz, hirurtekoengatik gehitzen diren lizentzia-egunek aurrekoen funtzionamendu bera izango dute ordu-proportzioari dagokionez, baina ezingo modu zatikatuan hartu.

— Prozedura.

Lizentzia-orduez gozatzeko, saileko arduradunak (musika-eskolako kasuan, zuzendariak) baimendu beharko du eskaera, zerbitzuan izango duen eragina kontuan izan ondoren. Musika-eskolako irakasleen kasuan, har daitekeen egun edo ordu kopuru osoaren erdiak bakarrik hartu ahal izango dira irakastegunetan. Gainontzeko egunak eskolarik gabeko orduetan hartu beharko dira.

Ordu horien erabilpena gauzatzeko, Giza Baliabideak Azpisailaren eta musika-eskolako eta txistulari-bandako zuzendariaren artean, lanaldi partzialen urteko egoeraren koadroa prestatuko dute, langile bakoitzak duen lanaldia eta gozatzeko duen ordu-kopurua zehaztuta.

Urte hasieran, langile bakoitzak taula horretan ageri den ordu-kopurua izango du erabilgarri (aurrez, abenduan, langile bakoitzari hirurtekoengatik dagozkion orduak eguneratu ondoren, musika-eskolako eta txistulari-bandako zuzendariek Giza Baliabideak Azpisailera taula eguneratua bidaliko dute).

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria celebrada el día treinta de mayo de dos mil veinticuatro, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

*Primero.* Aprobar el convenio complementario para el disfrute de los días de licencia por asuntos particulares del personal a tiempo parcial, con el siguiente contenido:

«Para el personal a tiempo parcial, el número de estos días y la posibilidad de fraccionamiento será la siguiente:

1. El personal con jornada parcial que acuda al trabajo diariamente, de lunes a viernes, y realice el mismo número de horas diarias de trabajo, dispondrá de seis días (excluidos los días que le correspondan por trienios), con posibilidad de fraccionar dos de ellos, y por cada día que disfrute cogerá un día completo de permiso (excepto los días fraccionados).

2. El personal con jornada parcial que tenga una distribución diferente de horas de trabajo en los distintos días de la semana, o que acuda a trabajar menos de cinco días a lo largo de la semana, dispondrá de un número de horas proporcional al porcentaje de jornada. Teniendo en cuenta que en el caso de la jornada completa son 42 horas, se calculará en consecuencia.

En este caso, el trabajador/a utilizará de su bolsa de horas el número de horas que hubiera trabajado el día que disfrute la licencia. No obstante, podrá disfrutar de las horas disponibles distribuidas en un máximo de ocho días, perdiendo las mismas si tras el disfrute de ocho días, no se hubiera utilizado la totalidad de las horas disponibles.

Cuando se disfrute un día de licencia, si sólo se disfruta una parte del día de trabajo, deberá disfrutarse un mínimo de dos horas.

En cambio, los días de licencia que se añadan por trienios tendrán el mismo funcionamiento en proporción horaria que los anteriores, pero no podrán disfrutarse de forma fraccionada.

— Procedimiento.

Para el disfrute de las horas de licencia, la solicitud deberá ser autorizada por el/la responsable del área (en el caso de la escuela de música, por el/la directora/a), teniendo en cuenta su incidencia en el servicio. En el caso del profesorado de la escuela de música, sólo se podrá disfrutar en días lectivos la mitad del total de días u horas disponibles. El resto de los días deberán disfrutarse en horas no lectivas.

Para hacer efectiva la utilización de estas horas, entre la Subárea de Recursos Humanos y el/la directora/a de la escuela de música y de la banda de txistularis, elaborarán un cuadro de situación anual de jornadas parciales, especificando la jornada y el número de horas a disfrutar por cada trabajador/a.

A principios de año, cada trabajador/a tendrá disponible el número de horas que figura en dicha tabla (previamente, en el mes de diciembre, una vez actualizadas las horas que a cada trabajador/a le corresponden por trienios, los/as directores/as de la escuela de música y de la banda de txistularis remitirán a la Subárea de Recursos Humanos la tabla actualizada).

ZIRRIBORROA - BORRADOR

EK\CV GAO-I-2024-04195

Orduen eskaera egitean, erabiliko den ordu-kopurua zehaztu beharko du langileak, bere ordu poltsatik kentzeko».

*Bigarrena.* Hitzarmen Osagarri hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik indarrean sartzea.

*Hirugarrena.* Akordioaren testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udaletxeko Iragarki taulan eta udaleko web orrian argitaratzea.

Erabaki honen aurka ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean. Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Tolosa, 2024ko ekainaren 4a.—Andu Martinez de Rituerto Arregi, alkatea. (4195)

En el momento de realizar la solicitud de horas, el/la trabajador/a deberá especificar el número de horas a utilizar, para descontarla de su bolsa de horas».

Segunda. El presente Convenio Complementario entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Tercero.* Publicar el acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y en la página web municipal.

Contra este acuerdo no cabe recurso en vía administrativa. No obstante, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

Tolosa, a 4 de junio de 2024.—El alcalde, Andu Martinez de Rituerto Arregi. (4195)

EK\CV GAO-I-2024-04195



EKS | CSV: ZIRRIBORROA - BORRADOR
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110*